

txintxarri



Buruari ederki eragin diote herritarrek

Lasarteoritarrek Inauterietaz gozatu dute, goizez, arratsaldez eta gauez / 6-9

TXINTXARRI

Sahararekin bat

Saharar herriari elkartasuna adierazteko ekintzak antolatuko dituzte hilabete amaieran / 04

Herritarrei udala gerturatzeko asmoz, Herritarren Bulego Ibiltaria auzoz auzo ibiliko da / 2

Iñigo Altuna txirrindulari gaztea, Caja Rural taldean jauzia emateko prest dago / 12



ELECTRICIDAD
ARREGUI



600 857 586
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)



“Akuario”
zutikako lanpara



Mesanotxerako lanparak



Idazmahairako
lanparak



“Laba” lanparak



Atsobakarreko langielak, astearteko udalbatzarrean. TXINTXARRI

Euskararen legea ez dela betetzen salatu du EAJK

Zaharrentzako tutoretzapeko apartamenduak sortzea onartu du udalbatzarrek. Atsobakarreko langileek haien "lan baldintza kaskarrak" salatu dituzte, eta Landaberriko irakasleek deitoratu dute ikastetxeko pankarta kentzeko agindu izana

Adrian Garcia

Orain hogeitun urte sartu zen indarrean euskararen plana, EAEko administrazioek euskara normalizatzeko urratsak egin dituzten. Haatik, EAJKo zinegotzi Estitxu Alkortak salatu duenez, Lasarte-Oriako Udalak ez du plan hori betetzen. Astearteko ohiko udalbatzarrean zerrendatu zituen Alkortak alor horretan udalak eginiko urraketak: "Derrigorrezkoa da plan horren puntu guztiak betetzea".

Honakoa dio lege horrek, besteak beste: erakundeko langile guztien lan hizkuntzak euskara izan behar du; udalaren ahozko zein idatzizko komunikazioetan euskarak lehenetaria izan behar du; udaleko departamenduak arduratu behar dira edukiak bi hizkuntzetan prestatzeaz; 30 urtez azpikoek zuzendutako idatziak euskara hutsean behar dute. "Betetzen al dira horiek?", galdetu du Alkortak erretorikoki.

Gaia udaleko bi euskara planaren luzapenaren harira

atera da batzarrean. Gai zerrendan ezarria zegoen luzatzea *Euskararen Bidegorria 2013-2017* eta *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2014-2017*. Halere, beste lege bat onartzekoak direnez, eta udaleko idazkariak eginiko txostena aztertzeke, eztabaida atzeratzea onartu dute aho batez. "Txosten hori ere gaztelania hutsean dago", salatu du Alkortak. Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko Zuzendaria ere bada EAJKo zinegotzia.

Landaberri eta Atsobakar

Luze jo du batzarrek, zerrendako gaiez gainera beste hainbat presazko mozio aurkeztu dituztelako. Udaletxeko batzar aretoa bete egin da, galdera eta erreguen txandan herritarrek parte hartu dutelako. Batetik, Atsobakarreko langileak bertaratu dira, laneko "baldintza txarrak" salatzeke. Bestetik, Landaberriko irakasleek erraustegiaren hurbiltasunagatik kezka adierazi dute, eta udalari

deitoratu diote azpiegitura horren aurka jarrita zuten pankarta kentzeko agindu izana.

Gai horri lotuta, EH Bilduk udalaren "zentsura praktikei" buruz mozio bat aurkeztu du. Pablo Barrio bozeramailearen arabera, udalak "deserosoak" zaizkion afixak kentzen ditu, "garbitasunaren aitzakian". ADLOP Ahal Du Lasarte-Oria Podemosek babestu du mozioa, baina ez da nahikoa izan aurrera ateratzeko.

Zaharrentzako apartamenduak

Bestetik, batzarrek zaharrentzako tutoretzapeko apartamenduak egiteko mozioa onartu du, ADLOPeke proposatuta. PSEk bosgarren puntuari egindako emendakina ere onartu dute.

Mendebaldeko Sahararen aldeko mozioa, pentsioen igoerari buruzkoa, eta "berriz azter daitekeen" bizi arteko espetxe zigorrari buruz ere eztabaidatu dute.

Herritarren Bulego Ibiltaria, udala herritarrei gerturatzeko

Lasarte-Oriako Udalak auzoetako bizilagunen kezkek, kexak edo iradokizunak lekuan leku jasoko ditu

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udala herritarrei gerturatzeko asmoz, azaroan onartutako Parte-hartze araudiaren barruan hainbat ekintza zehaztu dituzte. Horien artean, otsailaren 18an martxan jarriko den Herritarren Bulego Ibiltaria dago.

Bulego horretan, hainbat euskarraren bitartez, udaleko informazio orokorra eta auzoko informazio zehatza jasoko dute herritarrek. Era berean, alkate eta zinegotziekin zuzenean hitz egin eta dituzten kezkek, kexak edo iradokizunak jakitera eman ahalko dizkiete.

Lasarte-Oriako auzoetan urtean behin izango da Herritarren Bulego Ibiltaria. Lehenengo hitzordua Basaundi auzoan izango da. Bulegoko karpa otsailaren 18an, igandean, 10:00etatik 14:00etara egongo da auzoko plazan. Bertan, besteak beste, berrurbanizazioari buruzko informazioa jasoko dute bileretara hurbildu ezin izan duten herritarrek.

Gainontzeko hitzorduak honako hauek izango dira: martxoaren 11n, Okendo plaza; apirilaren 15ean, Basotxo plaza;

maiatzaren 13an, Brunet parkea; irailaren 16an, Jaizkibel plaza; urriaren 21ean, Isla plaza; azaroaren 18an, Atsobakar parkea; eta abenduaren 16an, Oztaran plaza. Hitzordua baino astebete lehenago dagokion auzoan kartelak jarriko dituzte.

Haurrentzako ekintzak

Bulegoarekin batera, aisia eta kultura ekintzen deszentralizazioarekin jarraituz, udalak haurrentzako ludoteka, tailerrak eta puzgarriak antolatuko ditu. Musika ere izango da. "Gurasoak bulego ibiltarian dauden bitartean, haurrek ekintza askoz gozatu ahalko dute", adierazi du alkateak.

Gizaire S.L. enpresak eskainiko du zerbitzua, eta 21.745 euroko kostua izango du. Udal ordezkariak herritarrek gonbidatu dituzte "beldurrak galdu", bulego ibiltarira hurbildu eta haien ekarpenak egitera.

Bestalde, alkateak parte hartze alorrean konpromisorik ez izatea leporatu dietenentzat ere hitzak izan ditu: "Bi urte hauetan araudia onartu dugu, eta aurreko gobernuak baino ekintza gehiago ari gara aurrera eramaten".



TXINTXARRI

Txakurren jabeak kontzientziazten

Udalerri Lagunkoi baten alde. Jabe eredugarria nahi dut. Konpromisoa hartuko duzu? kanpaina martxan jarri du Lasarte-Oriako Udalak. Helburua txakur jabeen, animalien eta herritarren arteko elkarbizitza hobetzea da. Kanpainaren informazio guinea auzoz-auzo ibiliko da otsailean eta apirilean. Gunera hurbiltzen diren herritarrei Lasarte-Oriako animalien araudia banatu eta azalduko zaie. Isunen berri ere emango dute; ohartarazi dute arauen jarraipena egingo dutela udaltzainek.



Rodríguez, Alberdi, Lujanbio eta Labaka, iazko saioan, Xirimiri elkartearen. TXINTXARRI

"Urte guztiko bertso ekitaldirik bereziena"

Ane Labaka bertsolariarentzat saio "goxoa" izan ohi da Lasarte-Oriako Literatura Txokoaren bertso-afaria. Larunbatean Xirimiri elkartearen jardungo du, Lander Garro, Uxue Alberdi eta Nerea Ibarzabalekin batera. Sarrera guztiak agortu dira dagoeneko

Adrian Garcia

Erritmo onean saldu, eta bukatu dira dagoeneko. Bertso-afaria baino bost egun lehenago agortu dira sarrerak. Ez dago lekurik Lasarte-Oriako Literatura Txokoak urtero antolatzen duen ekitaldirako. Eta ez da harritzekoa, aurreko edizioak oso arrakastatsua izan dira eta. ETBleko *Hitzetik Hortzera*-k iazko saioa grabatu zuen, eta saiorik ikusienetakoa izan zen. Aurten ere ikusmin handia sortu da. Horretan lagundu dute parte hartzaileek: Lander Garro idazlea, eta Ane Labaka, Uxue Alberdi eta Nerea Ibarzabal bertsolariak izango dira larunbat iluntzean Xirimiri elkartearen.

Lau urte dira dagoeneko Literatura Txokoak afaria antolatzen duela. Horietan guztietan ez du hutsik egin Labakak. "Urtean zehar egiten den bertso ekitaldirik bereziena da niretzat". Xirimiri elkarte txikia da, eta agian horrek lagunduta, "giro goxoa" sortzen

da, etxekoa bezalakoa. "Bertso-afaria izatean ere, afalosteko giro horrek laguntzen du". Literatura Txokokoek mimo handiz prestatzen dute gaua. Haiek arduratzen dira dena puntuan egoteaz, afaria barne. "Janaria beti goxo-goxoa izaten da". Giro horrek asko laguntzen die bertsolariei gero, lasai jardun dezaten. "Etxe giroa sortzen da".

Literatura, bideratzailea

Bada beste elementu bat bertso-afaria ezohikoa egiten duena: literatura. Izan ere, lau gonbidatutatik bat idazlea izaten da; Garro, kasu honetan. Hark egiten ditu gai-jartzaile lanak, eta ekitaldia bideratzen du,

LITERATURA ETA BERTSOLARITZA UZTARTUKO DITUZTE LARUNBAT AFALOSTEAN

literatura pasarteren bat txertatzeaz gainera.

"Ez dakit Landerrek nola planteatuko duen. Idazlearen arabera izaten da", azaldu du Labakak. Esaterako, bigarren urtean Danele Sarriugarte egon zen. Hainbat idazlearen testuak irakurri zituen, eta horrekin lotuta gai bat planteatu zuen, elkarren arteko loturarik gabe. "Eider Rodriguezek, ordea, istorio bat sortu zuen, eta gu horren barruko pertsonaiak ginen. Idazlearen esku geratzen da".

Iaz izan zirenek batez ere Rodriguezen parte hartzeaz oroitzen dira; idazleak jaso zuen txalo zaparrada handiena. "Saio dezentetan kantatu dut, eta ez nuen sekula ikusi gai-jartzaileak bukatutakoan ikus-entzuleek hari txalo egitea", esan du Labakak. Aurten ere, saio "polita" aterako dela uste du. Badaezpada ere, *Hitzetik Hortzera*-ak prest dituzte kamerak ikuskizuna grabatzeko.



NEURE KABUZ

MAIDER GALARDI

Planto

(Igande gaua, afalostean, sofan eseri berri).

-Maider, zure lagunak ikusi nituen atzo, hamaika lanbidez moztortuta pankarta eskuan.

-Bai, martxoak 8ko greba deialdia luzatzen ari ginen. Emakumeok* planto egingo dugu ama!

-Baina, nola? Zein da ba, aurtengo lanketa? Badakizu elkartearen beti ahalegintzen garela bideotxo bat prestatzen, eta...

-Aurten ez duzu ba lanik egingo!

-Ba ideia genuen ez dakit nora joan eta ez dakit zeinekin koreografia prestatzeko.

-Tira, lan uzte denboran egiten ez baduzu... edo egin dezala gizona batek bestela, gure hutsunea ikustarazteko eguna izango da eta. Lanean ez bazaude, ez da bideorik izango...

-Edu, animatuko zara zu?

-Nik ere planto egingo dut klasean -dio Anek- Gainera, behar-beharrezkoa da emakume* sukaldarion egoera ikustaraztea: etxeetan gu gabe ez dago zer janik, eta izarretan daude gizona *chef*-ak. Goizeko mobilizaziora joango gara klaseko zenbait emakume*.

(Telefonoa. Amona seguru, Anek laguntza eskatu dio babarrunen inguruko lan bat egiteko)

-Hola Amona! Zer moduz? Pintarrak direla zuen baserrian landatzen zenituzten babarrunak? Hara! Eskerrikasko! Orduan, Tolosako babarrunena asmakaria hutsa... Datorren igandean egingo dugula dastaketa? Ederki, eta familia guztia elkartuko gara. Ya... Zenbat lan egiten duzun amona. Ez dela lana? Horixe baietz! Oraintxe esan diot Maiderrri martxoaren 8an emakume* sukaldariok planto egingo dugula. Zergatik? Jakin nahiko nuke zenbat kilometro egin dituzun pasiloan gora eta behera, zenbat pisu altza sukaldian, zenbat aldiz egin 24 orduko erizain guardia... Amona, langile peto-petoa zara! (Barreak).

-Ane! Esaiozu larunbatean hitz egingo dugula, eta has daitezela aita eta osaba txandak antolatzen; egun horretan amona gurekin eramango dugu eta!

-Baina, nik ez al nuen Isaren bideoa egin behar? Ene! Munduak planto egingo duela!

Yoga familian jarduera berezia, kiroldegian

Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuak Yogan hasteko saio berezia antolatu du 2006 eta 2009 urteen bitartean jaiotako neska-mutilentzat eta haien gurasoentzat.

Saioa otsailaren 24an da, 16:30ean, Maialen Chourraut kiroldegian. Jarduera doakoa da udal kirol instalazioen bazkideentzat. Interesa duten herritarrek kiroldegian eman beharko dute izena otsailaren 21a baino lehen. Plaza kopurua mugatua da eta izen-emate zerrenda errespetatuko da.



NOAOA
BIDAIAK

IRTEERA MAIATZEAN
Noaok gidatutako talde bidaiak.
Lasartetik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria



Euskal Herriko Lagunak Mendebaldeko Saharakoekin Bat taldeko kideak, asteazkeneko agerraldian. TXINTXARRI

Sahararekiko elkartasunak ez du etenik Lasarte-Orian

Mendebaldeko Sahararen egunerokoa Lasarte-Oriara ekarriko dute datozen egunetan. Euskal Herriko Lagunak Mendebaldeko Saharakoekin Bat taldeak hitzaldia, bazkaria eta elkarretaratzea antolatu ditu otsailerako eta martxorako

Txintxarri

Mendebaldeko Saharari elkartasuna adierazteko egunak izango dira otsailaren 21a, 27a eta martxoaren 3a. Ekintza bereziak antolatu ditu egun horietarako, Euskal Herriko Lagunak Mendebaldeko Saharakoekin bat taldeak. Horrela jakinarazi du Tomas Arruti elkarteko kideak, elkartasun egunetako egitaraua aurkezteko egindako prentsaurrekoan.

Emakumeak izango dira nagusi hilaren 21ean. Lasarte-Oriako Talde Aktibistak antolatuta, *Sahara eta Azerbaijan, emakumeen begiradatik* hitzaldia izango da, Manuel Lekuona kultur etxean, 19:00etan. Horretan, Garazi Hach Embarek eta Tarana Karimek bi lurralde horietako gatazkak ekarriko dituzte Lasarte-Oriara.

Hilabete amaieran, otsailaren 27an, *Maroko Sahararik at, independentzia Sahararentzat* lelopean, elkarretaratzea egingo

dute. 19:30ean izango da hitzordua, Okendo plazan.

Martxoaren 3an, 14:00etan, saharar bazkari bat egingo dute, Kale Nagusiko Furia Beltzan. Bertara joateko, alde aurretik tiketak erosi beharko dira. Hamabost euro balio dute, eta Kale Nagusiko edota Pablo

Mutiozabal kaleko Furia Beltza tabernatan erosi ahal izango dira. Menua ere ezagutarazi dute: harira, kous kousa barazkiekin, arkumea saharar erara prestatuta eta postrea, kafea eta edaria izango dira. Antolatzaileek gonbita luzatu diete herritarrei elkartasun ekintzetan parte hartu dezaten.

Udalak bat egin du Sahararekin

Astearteko ohiko udalbatzarrean zenbait eskakizun egin zituen *Euskal Herriko Lagunak Mendebaldeko Saharakoekin Bat* taldeak, mozio baten bitartez. Aho batez onartu du udal gobernu taldeak.

Beste zenbait eskakizunen artean, Mendebaldeko Saharako lur okupatueta gertatzen diren giza eskubideen aurkako erasoak irmo salatu dituzte, eta Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren autodeterminazioa eta independentziarako eskubidea ere aitortu dute. Horrekin batera, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zenetik 42. urteurrena izanik, otsailaren 27an Mendebaldeko Saharako bandera udalean jartzea adostu dute, eta egun horretan bertan, Okendon deitutako elkarretaratzearekin bat egin dute. Tomas Arrutik eskerrak eman dizkio udal gobernu taldeari mozioaren alde egiteagatik.



ELA/LAB

Lau orduko lan uzte deialdia

ELAk eta LABek "indar korrelazioa" irabazi nahi dute udal eta foru administrazioetan, eta, horretarako, lau orduko lan uzte batera deitu dute otsailaren 28rako. Lasarte-Oriako Udalean ere egin dute deialdia. Asteazkenean kontzentrazioa egin zuten langileek udaletxearen atarian; beste herrietan ere egingo dituzte horrelakoak.



TXINTXARRI

Txerriekien festa, asteburuan

III. Txerri-hilketa asteburua egingo dute *Virgen de Guadalupe* Extremeña Elkarteak. Berrogeigarren urteurrena ospatzeko, berezitasun bat izango du aurtengo ekitaldiak; elkarteko kideek hilko dute aurtengo txerria. Larunbat eta igandean txerriak egin eta dastatu ahal izango dituzte bertara gerturatzen direnek. Bazkide ez diren herritarrek sarrerak erosi beharko dituzte.

Itsaspeko zinemaldia martxan da Manuel Lekuona kultur etxean

Ireki ditu atea Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloak. Astelehen iluntzean eman zuten, Manuel Lekuona kultur etxean, lehen ikus-entzuzkoa. Horretan, itsaspeko bizitza ezagutzeko aukera izan zuten gerturatu ziren herritarrek, eta itsaspeko zaldien, olagarroen eta beste zenbait animalien bizitzaren berri jaso zuten ikus-entzuleek.



Itsas zaldia. TXINTXARRI



Ederki gozatuko dute Kuadrillategiko gazteek Valdezcarayko eski estazioan. KUADRILLATEGI

Gazteentzako eski irteera Valdezcarayra

Kuadrillategi egitasmoko kideek lagun artean eskian ibili eta hizkuntza ohiturak sendotzeko aukera izango dute martxoaren 4rako antolatu den irteeran. Goizeko 05:45ean aterako da autobusa hipodromotik, eta iluntzean itzuliko da herrira

Txintxarri

Kuadrillategi egitasmok eskian irteera antolatu du martxoaren 4an. 12 urtetik 18 urtera arteko Lasarte-Oriako gazteek Valdezcarayko eski estazioan egun paregabeaz eta euskaraz gozatuko aukera dute.

Goizeko 05:45ean aterako da autobusa hipodromotik. 8:30ak aldera, Valdezcarayra iritsi, sarrerak atera eta eskiak edo snowboard-a jantzi ostean, elurraz gozatuko dute gazteek.

Arratsaldeko 17:30ak aldera aterako dira eski estaziotik eta 20:00etara Lasarte-Oriara izango dira.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, bakoitzak jatekoa eramane beharko du. Bestela, bertan erosi ahalko du.

Izena ematea

Irteerako prezioa 60 eurotako da; Ttakun Kultur Elkarteak bazkideek, berriz, 55 euro ordaindu behar dituzte.

Prezioan forfaiata, autobusa eta eskian egiteko materiala (eskiak edo snow taula, botak, makilak eta kaskoa) daude barne. Baina antolatzaileek azpimarratu dutenez, Valdezcarayko forfaiata edo eskiatzeko material guztia, kaskoa barne, duten gazteek

prezio merkeagoa ordainduko dute.

Izena ematea otsailaren 19tik 23ra egingo da Ttakuneko bulegoan. Ostiralean goizez egin ahalko da bakarrik.

Kuadrillategiko partaideek lehentasuna izango dute.

Irteerari buruzko informazio gehiago edo zalantzak izanez gero, interesatuek ktglasarteoria@ttakun.eus helbidera idatzi edo 678 170 113 telefonora deitu behar dute. Antolatzaileek "irteera dibertigarria" izango dela aurrerikusi dute, eta Kuadrillategikoak animatu dituzte parte hartzera.

Martxoaren 8ko kartelen lehiaketa martxan

Lasarte-Oriako Udalak martxoaren 8 Emakumeen Nazioarteko eguneko kartel lehiaketako oinarriak argitaratu ditu.

Emakumeen Nazioarteko eguneko kartel lehiaketa 12 eta 17 urte bitarteko gazteek parte hartuko dute. Proposamenak otsailaren 19tik martxoaren 2ra aurkeztuko dira. Lanak formatu digitalean nahiz fisikoan aurkeztu ahal dira.

Kartel guztiak www.lasarteoriasarean.eus webgunean izango dira ikusgai. Era berean, Emakumeen Zentroan erakutsiko dira martxoaren 5etik 8ra. Bertan lanak bozkatu ahal izango dira. Izan ere, herritarren iritzia kontuan izango da kartel irabazlea hautatzerakoan.

Aurkezten diren kartelen artean hiru aukeratuko dira eta bat izango da irabazlea. Lehen sailkatuak 150 euro jasoko ditu, bigarrenak 120 euro eta hirugarrenak aldiz 90 euro.

Erraustegiaren aurka manifestazioa, otsailaren 24an

Erraustegien aurkako Mugimenduak otsailaren 24an manifestazioa antolatu du Donostian. *Erraustegia gelditu, birziklapena sustatu* lelopean, 17:30ean hasiko da Gipuzkoa plazan.

Zubietako erraustegiaren obren geldialdia eta Gipuzkoa osoan hondakin bilketa eraginkorra, tokian tokiko berezitasunetara moldatua egitea eskatzen dute.

Manifestazio deialdian honakoa esan dute: "Dagoeneko jakin badakigu %80ko birziklatze tasa lortzea posible dela, horretarako bitartekoak jarri eta borondatea izanez gero." Adibide gisa, Ormaiztegi jarri dute; %88ko bereizte tasa lortu dute.

"Otsailaren 24an "hondakinak ondo bereizi eta egin beharrik txukun gauzatzen dituzten horiei ahotsa eman nahi diegu, ondo egiten dutenak eredu dira eta nagikerian ezkututzen direnei deialdara egin nahi diegu".

"Rigoletto"-ri esker, opera bueltatu da Lasarte-Oriara

Manuel Lekuonan berritua opera denboraldia hasi da. Asteazkenean Giuseppe Verdi musikagile handiaren *Rigoletto* operaren proiektio digitalaz gozatu zuten areto nagusian bildu ziren herritarrek. Royal Opera Houseko abeslari eta musikarien lan honen hasieran, operari buruzko azalpen batzuk eskaini dituzte, ikusleek opera hobeto uler dezaten.



Rigoletto operaren momentu bat. TXINTXARRI



LARRIALDI TELEFONOA DOAN

www.bertako.eus
info@bertako.eus
943 90 34 50

24 orduko asistentzia abisu guztientzat 
Iraupen-konpromisorik gabeko kontratuak

Orotariko zerbitzua 100 €-tik aurrera

Euskarazko zerbitzua

Lanbideen festa handia

Larunbateko Inauterien jaialdia, irudietan



Intzak Parrandako kideek konpartsa onenaren lehen saria jaso zuten. TXINTXARRI



Musika Eskolako ikasleek Inauteritako Kontzertu Bufoa eskaini zuten. TXEMA VALLES



XIX. mendeko lanbideak ekarri zituzten Lasarte-Oriara Erketz EDT-ko lagunek. TXINTXARRI



Animaliaz, barazkiz eta txorimaloz osatu zuen Larramendi baserria Larramendizalez konpartsak. TXINTXARRI



Emakumeen Zentro Zibikoak dantza erakustaldia egin zuen Okendoko oholtzan. TXINTXARRI

"Handiek ongi pasatzen dugu, baina hurrek oraindik hobeto"

NURIA PALACIOS INTZAK PARRANDA KONPARTSAKOA
Suhiltzaileen kamioarekin, lehen saria irabazi du Intzak

Txintxarri

Irabaztera atera ziren, eta lortu egin zuten. Suhiltzailez jantzita konpartsa onena izendatu zuten Inauterietan Intzak Parranda. **Zergatik erabaki zenuten suhiltzailez mozorrotzea?**

Karrozarekin nahi dugu nabarmendu, eta pentsatu genuen suhiltzaileen kamioi bat egin genezakela errazago.

Zer moduz pasa zenuten eguna? Guk primeran. Handiek oso ondo pasatzen dugu Inauterietan, baina

hurrek oraindik gu baino hobeto pasatzen dute.

Asko kostatu al zitzaizuen dena prestatzea?

Abenduan hasten gara ideiak biltzen eta materialak erosten. Urtarrilean larunbat goizetan joan ginen dena prestatzen.

Irabaztea al zenuten helburu?

Bai, beti joaten gara sari bila. Bost urtetan atera gara. Aurten eta bigarren urtean irabazi genuen. Karrozari garrantzia handia ematen diogu; hor jartzen ditugu indarrak.



Intzak Parrandakoak, oholtza gainean. TXINTXARRI



Zabaleta Auzolan elkarteko lagunek arrantzalez eta itsasoko animaliez mozorrotuta osatu dute aurtengo konpartsa. TXINTXARRI



Jostunak ere herriko kaleetan barrena ibili ziren, jostundegi eta gutzi. TXINTXARRI



Jalgune elkarteak ere ikuskizun koloretsu eta animatua eskaini zuen Okendo plazan. TXINTXARRI

"Oholtza gainean sari bat irabazteko esperantza genuen"

IBAN MUÑOZ SASOETAN SAIOAN KONPARTSAKO KIDEA
Erritmoa jarri eta hirugarren saria eskuratu dute DJ-ek

Txintxarri

Argi zuten musikan jarri behar zutela indarra, eta mozorroak ere horretan lagundu zien. DJz jantzi ziren Sasoeta-Sasoian elkarteko kideak, eta konpartsen hirugarren saria irabazi zuten.

Zergatik aukeratu zenuten mozorro hori?

Sasoeta Sasoian ehun bazkide baino gehiago gara, eta beraiei galdetu genien. Guztien proposomenak batu ondoren, denon artean erabaki genuen DJak bihurtzea.

Nola prestatu zenituzten mozorroak?

Mozorroaren parte bat, jantzia, mozorroaren parte bat, jantzia, erosi genuen. Gero moldatu egin genuen, DJ baten antza gehiago edukitzeko. Osagarriak eskulanak dira, musika

aurikularrak edo karroza guztia adibidez.

Zer moduz pasa zenuten eguna?

Guztiok primeran pasa genuen, goiz goizetik gaueraino. Okendon karrozen lehiaketa, gero bazkaltzera denok batera, eta azkenik, desfilea. Hilabetetan zehar gogor lan egin ondoren, karroza eraikitzen eta dantzak ikasten, desfilean denok disfrutatu zuten, umeek eta helduek.

Espero zenuten saria irabaztea?

Aurten hiru sari zeuden. Oholtza gainean egindako lanaren ondoren, bat irabazteko konfiantza geneukan. Iaz izan zen gure lehen urtea konpartsa bezala, eta asko hobetu dugula pentsatzen dugu. Pozik gaude sariarekin.



Sasoeta Sasoianeko kideak, desfilean. TXINTXARRI

"Mozorroak guk egiten ditugu; inbertsioa txikia da jantzietan"

PILI BERMEJO JALGUNE KONPARTSAKO KIDEA
Baserritarren karrozak irabazi du bigarren saria

Txintxarri

Baserritarrez mozorretzea erabaki zuten Jalguneko kideek, baina gaiari buelta bat eman, eta, azkenean, *Granjero busca esposa* saioko pertsonaiez jantzi ziren.

Ezusteko handia izan al da bigarren saria eskuratzea?

Izugarria izan da, oso pozgarria. Gazteak ez ziren aldentzen urdaiazpikotik. Horri esker, orain beste ospakizun bat egiteko aukera dugu.

Noiz hasten zarete Inauterietarako prestatzen?

Urte hasieran, abenduko jaialdiarekin nahiko lan dugu eta. Gazteekin egiten da lanketa; haiekin erabakitzen da gaia, eta bakoitzak erabakitzen du zertaz mozorrotua joan nahi duen.

Mozorroak zuek prestzen al dituzue?

Dena egin dugu Jalgunen. Klubean genituen jantzi batzuk hartu genituen; begiraleek ere bagenituen batzuk. Urtero jantzietan egiten dugun inbertsioa txikia da.



Jalguneko kideak, dantzan. TXINTXARRI



Sasoetako DJek dantzan jarri zituzten Okendon bildutako herritarrak. TXINTXARRI



Limusina arrosa batean agertu ziren ATCKo lagunak, Kale Nagusira. TXINTXARRI



Ogia egin eta labean egosten aritu ziren okinez mozorrotutako zenbait lasarteoriatar. TXINTXARRI



Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko ikasleek ere gogoz dantzatu zuten ostiraleko jaialdian. TXINTXARRI



Landaberriko ikasleak inauteri festaz gozatu zuten ostiralean. TXINTXARRI



Herritar kuadrilla bat, Mary Poppins eta Bert pertsonaiez mozorrotuta. TXINTXARRI

"Izugarri ondo pasa dugu; motza egin zitzaidan eguna"

KORO DOMINGUEZ KASINO MOZORRO TALDEKO KIDEA
Kasinoko mozorroarekin bakarkako saria irabazi dute

Txintxarri

Hotel Kasinoko mozorrotzea pentsatu zuten hasiera batean Koro Dominguez lasarteoriatarak eta bere taldeak. Baina kasinoko mozorrotu dira azkenean, eta bakarkako saria eskuratu dute.

Nola otu zitzaien mozorroaren ideia?

Taldeko lagun batek proposatu zuen mozorroaren ideia. Sormen handia du, eta bere ideiaz baliatuta prestatu genituen jantziak. Hasiera batean Hotel Kasinoko mozorrotzea pentsatu

genuen, baina azkenean kasinoko jantzita atera ginen.

Nola prestatu dituzue mozorroak?

Materialak berrerabilita bakoitzak bere mozorroak prestatu ditugu. Karroa ordea, elkarrekin egin dugu, denon artean.

Zer moduz pasa zenuten eguna? Espero zenuten saria?

Izugarri ondo pasa genuen, motza egin zitzaidan eguna. Ez genuen saririk irabaztea espero, inolaz ere. Irabazitakoa banatu dugu, eta sobratutakoarekin afari bat egingo dugu.



Bakarkako mozorrorik onenaren saria irabazi zuen kasinoak. ISAAC FARRE



Plaza Irrintzika haurrentzako berbena egin zuten astelehen arratsaldean, Villa Mirentxun. TXINTXARRI

Dantza, kanta eta festa, 'Inahaldunetan'

Gazte Kluba, Kuadrillategi eta Amaraun Kluba egitasmoetan parte hartzen duten gazte eta gurasoek primeran pasa dute ostiral eta astelehen arratsaldean, mozorro koloretsuak eta euskara uztartuz.

Txintxarri

Euskara lantzeko hamaika modu daude. Esaterako, mozorrotuz eta Inauteriak giro ederrean ospatuz. Mozorroak eta euskara uztartu ditu Ttakun Kultur Elkarteak: Amaraun Klubak, Gazte Klubak eta Kuadrillategik *Inahaldunak* izeneko ekimen berritzailea egin dute, aurten lehenengoz.

Villa Mirentxun elkartu ziren begiraleak eta neska-mutil gazteak ostiral arratsaldean. Herrirako aukeratutako gaia ardatz hartuta (lanbideak), irudimena erabili dute gazteek mozorrotzeko. Begiraleek osatutako epaimahaia arduratu da mozorro onenak aukeratzeaz.

Arratsalde bikaina pasa zuten guztiek elkarrekin. Egitasmoaren arrakasta ikusita, datorren urtean errepikatzea ez litzateke harrizkeoa izango.

Herriko haur eta gurasoek, berriz, *Inahaldun* astelehena izan dute. Mozorro festa koloretsu eta alaia egin dute astelehen arratsaldean, Villa Mirentxun, eta 2 eta 8 urte bitarteko haurren arteko harremana sustatzeko, ekintza dibertigarria egin zuten.

17:30ean hasi zen ekitaldian. Ordurako, *Plaza Irrintzika* haurrentzako berbenari hasiera eman, eta gorputzak dantzan jartzeko aukera izan zuten gerturatutako haur eta gurasoek.

Mikrofonoa eskuetan hartu, eta askotariko doinu euskaldunak abestera ausartu ziren batzuk. Korrikaren *Zirkorrika* abestiarekin berotu zituzten gorputzak lehenik, eta horren ostean, Huntza taldearen *Aldapan gora*, Gatiburen *Euritan dantzan* eta Pirritx eta Porrotx pailazoen *Riki riki*. Baita ahobizi eta belarripresten abestia ere. Gogoz astindu zituzten gorputzak.

Berbena amaituta, mozorrorik onena aukeratzeko desfilean aritu ziren gaztetxoak eta gurasoak. Mozorro ugari ikus zitezkeen horien artean: animaliak, printzesak, pailazoak, Mario Bross, Hulk, eta erleak eta erlezainak, besteak beste. Guztien artean, rockeroak izan ziren garaile. Desfilea amaituta, gozokiak banatu zizkieten bertaratutako gaztetxoei.

Argazki eta bideo galeria ikusteko, ikus txintxarri.eus ataria.



Euskarazko zenbait abesti kantatu eta dantzatu zituzten gaztetxoek eta gurasoek. TXINTXARRI



Mozorroak soinean, desfilean aritu ziren bertaratutako parte hartzaileak. TXINTXARRI



Festa koloretsuan eta animatuan aritu ziren herriko gazteak. TXINTXARRI



Mozorro ugari prestatu zituzten Gazte Klubeko eta Kuadrillategiko gazteek. TXINTXARRI

Espainiako Minicopa ari da jokatzeko Buiza

Lasarte-Oriako saskibaloi jokalaria Kanariar Uhartetan da, Gipuzkoa Basket GBC taldearekin Endesa Minicopan lehiatzen. Lehen partida galdu ondoren, zaila dute aurrera jarraitzea; Real Madriden aurkako gaurko partidari jokatu dute kanporaketa

Txintxarri

Kanariar Uhartetan da Eñaut Buiza Lasarte-Oriako saskibaloi jokalaria, Gipuzkoa Basket GBC taldearekin Espainiako Minicopa txapelketa jokatzeko. Seniorrek ez, baina Donostiako taldeko infantilek lortu dute txartela, eta ligako zortzi talde hobereenen arteko lehiaketan daude. Talde horretan jokatzeko du Buizak, pibot posizioan. Lehen partida atzo jokatu zuten, eta Unicaja Andaluciaren aurka galdu zuten (52-55).

Real Madrid taldearen aurka jokatu dute gaur, ostiralean. Hurrengo fasera sailkatzeko ezinbestekoa izango dute irabaztea, baina ez dute erraza izango, iazko txapelketa baitira madrildarrak.

Txapelketa aurrera eginez gero, finalerdiak jokatu egingo dira lehiaketan, eta finala edo hirugarren posturako partida igandean.

Abenduan lortu zuen Buizak eta bere taldeak Minicopa



Eñaut Buiza, goiko ilaran, hirugarrena eskuinetik. GIPUZKOA BASKET

jokatzeko txartela. Endesa Ligako hamasei talde jokatu zuten sailkapen txapelketa, Valentzian. Gipuzkoa Basket-ek gain, beste bost talde egin zuten aurrera, tartean Baskoniak. Gran Canaria antolatzailea tea

Real Madrid iazko irabazlea zuzenean sailkatu ziren.

Propio txapelketa honetarako sortu dute taldea donostiarrek. Izan ere, hainbat talde jokalariek osatua da; Buizak Easo STBn jokatzeko du.



Paula Sevillano, Leire Martin eta Ainhoa Martin. BURUNTZALDEA IKT

Sevillano eta Martin ahizpak, Espainiako Txapelketara

Euskal Selektzioak deitu ditu Buruntzaldea IKTko igerilariak. Asteburuan Oviedon jokatu dute lehiaketa

Txintxarri

Paula Sevillanok, Leire Martinek eta Ainhoa Martinek Espainiako Erkidego Autonomoen Arteko Infantil eta Junior Txapelketa hartu dute asteburu honetan. Euskal Selektzioak deituta lehiatu dira Buruntzaldea IKTko igerilariak.

Larunbat eta igandean izango da txapelketa, Oviedon. Sevillano 400 metro librean eta 800 metro librean arituko da. Ainhoa Martinek, berriz, 100 eta 200 metro bular eta 400 lau estiloak probatan parte hartuko du. Azkenik, Leire

Martinek 100 eta 200 metro bizkar eta 200 eta 400 metro librean jardungo du.

Guztira 39 igerilari deitu ditu Euskal Selektzioak, infantil eta junior kategoriatan. Lasarte-Oriako kirolariak infantil mailan igeri egingo dute.

Gipuzkoako Selektzioa

Buruntzaldea taldeko igerilari gehiago izango dira selektzioarekin. Izan ere, Nora Imaz eta Eneko Elizasu taldekideek Gipuzkoako Selektzioarekin entrenatu dute larunbat goizean.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA	
ERREGIONALEN IGOERA FASEA	
Anaitasuna - Ostadar SKT	Igandea. 17:00. San Juan, Azkoitian.
ERREGIONAL PREFERENTE A	
Ostadar SKT - Santo Tomas Lizeoa	Larunbata. 17:30. Michelinen.
JUBENILEN OHOREZKO MAILA	
Ostadar SKT - Urki	Larunbata. 11:00. Michelinen.
JUBENIL 1. MAILA, IGOERA FASEA	
Ostadar SKT - Landetxa	Larunbata. 15:45. Michelinen.
KADETEEN OHOREZKO MAILA	
Vasconia - Ostadar SKT	Igandea. 17:30. Puio, Donostian.
KADETE 1. MAILA, IGOERA FASEA	
Ostadar SKT A - Allerru A	Igandea. 12:00. Michelinen.
KADETE 1. MAILA, KOPA	
Ostadar SKT B - Hernani	Igandea. 10:30. Michelinen.

ARETO-FUTBOLA	
HERRIKO TXAPELKETA	
Asador Irigoien - Txoko Aut. Luis Car	Larunbata. 09:30. Kirolgunean.
Avenida - Buenetxea	Larunbata. 10:30. Kirolgunean.
Insausti Kattagorri - Viña del Mar	Larunbata. 11:30. Kirolgunean.
Patricio - Trumoi	Larunbata. 12:30. Kirolgunean.
3. NAZIONAL MAILA	
Laskorain - Eguzki Antonio Aroztegia	Larunbata. 18:00. Usabal Kiroldegia, Tolosan.
GIPUZKOAKO 1GO MAILA	
Oiartzun - ISU Leihoak	Larunbata. 17:30. Oiartzunen.
SENIORRA	
Trumoi Taberna Eguzki- Lauburu	Igandea. 11:15. Kiroldegian.
GIPUZKOAKO 2. MAILA	
Cecilia Frutadenda Eguzki - Aurrera	Ostirala. 20:50. Kiroldegian.
GIPUZKOAKO JUBENILEN MAILA	
Teop Samaniego Orixe Tolosaldea - Lasarte Eguzki	Larunbata. 13:00. Tolosan.

GIPUZKOAKO KADETEEN MAILA	
Balardi Eguzki - Goierri	Igandea. 09:30. Kiroldegian.
SASKIBALOIA	
SENIORRA	
Ostadar SKT - Atic. San Sebastian	Larunbata. 16:30. Kiroldegian.
SENIORRA 3. MAILA	
Arri BKL Bideluze taberna - Ostadar SKT	Igandea. 17:30. Idiazabal.
JUNIOR ERRENDIMENDUA	
Bera Bera Uliia - Ostadar SKT	Larunbata. 20:00. Manteo Kiroldegia, Donostian.
JUNIOR PARTIZIPAZIOA, IGOERA	
Ostadar SKT - Bera Bera Kursal	Larunbata. 18:00. Kiroldegian.
KADETE ERRENDIMENDUA	
Ostadar SKT - Eskoriatza	Larunbata. 11:00. Kiroldegian.
KADETE PARTIZIPAZIOA	
No+Vello ISB - Ostadar SKT	Larunbata. 10:45. Azpeitian.
INFANTIL HAUNDI PARTIZIPAZIOA	
Ostadar SKT - Hondarribia Ikasbasket	Larunbata. 09:30. Kiroldegian.

INFANTIL TXIKI PARTIZIPAZIOA	
Ostadar SKT - Saski Axular	Larunbata. 09:30. Kiroldegian.
PILOTA	
UDABERRI, BINAKA 1. MAILA	
Intza 1 - Bergara	Ostirala. 20:00. Michelingo pilotalekuan.
TRINKETA, BINAKA 2. MAILA	
Intza - Hernani 1	Igandea. 10:30. Ametsa trinketa, Iruran.
IGERIKETA	
ESPAINIAKO TXAPELKETA	
Paula Sevillanok eta Martin ahizpek infantil eta junior mailako Espainiako Erkidego Autonomoen arteko txapelketa ariko dira lehian.	Larunbata eta igandea. Oviedon.
LASTERKETA	
AFIZIONATUAK	
Herriko lasterkariak Zumaia XXXIV. herri lasterketako 10.200 metro eta 5.600 metro probetan ariko dira.	Larunbata. 17:00. Zumaian.

Herriar talde batek Kobaz Koba probako 25 km. eta 13 km. lasterketan parte hartuko du.	Igandea. 09:00. Zestean.
Herriar talde bat V. Lezo-Jaizkibel mendi lasterketan ariko da.	Igandea. 10:00. Lezon.
ARRAUNA	
ORIA IBAIAREN JAITSIERA	
Intza Fernandez (Hondarribia) eta Andrea Martin (Ori) Ori Ibaiaren jaitsieran proban lehiatuko dute.	Larunbata. 16:00. Orion.
IPAR MARTXA	
ASPANOGIREN ALDEKO MARTXA	
Ostadar SKT Ipar Martxako taldeak Aspanogiren aldeko martxan parte hartuko dute.	Igandea. 11:00. Donostian.
ERRUGBIA	
OHOREZKO B MAILA	
Babyauto RT - Kaleido Univ. Vigo	Igandea. 12:00. Asti, Zarautzen.

Haritz Urdangarin, bosgarren sektorean

Bi borroka irabazi eta beste bi galdu ostean, brontzeko domina eskuratzeko aukerak galdu ditu judoka gazteak, Espainiako Sektorea Faseko Txapelketan, Gasteizen. Ondo hasi du txapelketa, baina gerora azpitxapeladun izan denarekin galdu du kanporaketa

Txintxarri

Txapelketa handia egin du Haritz Urdangarin judoka lasarteoriatarak. Espainiako Junior Txapelketako Sektore Fasean lehiatu zuen joan den asteburuan, Gasteizen, eta bi borroka irabazi eta beste horrenbeste galduta, bosgarren geratu zen.

Gisa honetako txapelketak garrantzitsuak dira eskarmentua irabazteko, eta horretarako baliatu du judoka gazteak. 73 kilo arteko kategorian lehiatu da; pisu ertainean lehiakortasuna handia izaten da, kirolari askok parte hartu ohi dute eta.

Alvaro Puellas errioxarraren aurka lehiatu zen lehenengo borrokan. Hurrengo borroka Iban Buldain aragoiarraren aurka egin zuen. Hark lehenengo kanporaketa ez zuen jokatu, eta, horrenbestez, freskoago aritu zen.

Galdu ostean, bigarren ligaxkan sartu zen Urdangarin. Jon Agirrezabal nafarrari irabazi zion, baina Aitor Goikoetxeak garaitu zuen ondoren, eta hirugarren posturako aukerak galdu zituen. Bi finalistek automatikoki Espainiako Txapelketan parte hartzeko sarrera eskuratu zuten.



Haritz Urdangarin judoka. GORKA ARISTEGI

Proba "berezia" Martinentzat: Oriako traineru jaitsiera

Proba "berezia" jokatu du Andrea Martin Lasarte-Oriako arraunlariak: Oria ibaiaren jaitsiera. 93 ontzik lehiatu dute guztira, larunbat arratsaldean. Oriako Arraun Elkarteko kide da Martin, eta denboraldi hasierako proba garrantzitsuena dute, etxean jokatzeko dutelako. "Giro izugarria egoten da herrian, denetan bereziena da proba".



Oriako eskifaia. ORIOKO ARRAUN ELKARTEA

Zulotik ateratzeko beste aukera bat du Ostadarrek

Erregional Preferente mailako Ostadarrek beste aukera bat du zulotik ateratzeko. Santo Tomas Lizeoaren aurka jokatu du asteburu honetan, Michelinen. Aurreko postuetan dira donostiarrak, baina Ostadarrek puntuak behar ditu sailkapeneko azken postuetatik ihes egiteko. Puntu gutxiaren bueltan daude azken bost sailkatuak.

Ipar Martxa taldea, Aspanogiren aldeko martxan, Donostian

Ostadaren Ipar Martxa taldeak igandean, hilaren 18an, Aspanogiren aldeko martxan parte hartuko du. Minbizia duten haurrei laguntzen dio elkarteak. Igandean 11:00etan abiatuko dira Saguesetik, Gros auzotik, eta hiru hondartzak gurutzatuko dituzte. Ipar martxakoek Aste Santuan Menorca egingo dute irteera.

LAN-ESKAINNTZA

Ttakun Kultur Elkartearen
informatikaria
behar dugu

Baldintzak:

- Euskara maila ona izatea
- Web eta sistemak kudeatzen trebea
- Programazioan trebea, webguneak Python eginak
- Datu baseen kudeaketa. SQL
- Lainoan lan egiten esperientzia
- Linux zerbitzarien kudeaketa



Curriculumak bidaltzeko:
ttakun@ttakun.eus
Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria
Tel: 943 37 14 48



Martxoaren 3an... TXURI URDINERA GOAZ!

Izen-emate epea: martxoaren lera bitarte (plaza mugatuak)
Askaria, galtzerdi potoloak eta KASKOA (txirrinde) eraman behar dira.

Irteera: 16:00etan. Itzulera: 19:30ean.
Lekua: Zumaburuko autobus geltokia.
Prezioa: Ttakuneko bazkideak 14€, gainontzekoak 17€.

Izen-ematea aisia@ttakun.eus-en, 695 785 392-an edota Ttakunen bulegoan.



"Jauzi bat eman dut, ea nabaritzen den aurten"

IÑIGO ALTUNA CAJA RURAL-EKO TXIRRINDULARIA

Talde nafarraren 23 urtez azpikoen taldean dago Lasarte-Oriako txirrindulari gaztea. Urrats garrantzitsua egin du, baina zuhur agertu da: "Pausoz pauso joan behar dut"

Adrian Garcia

Denboraldi honetan maillota estreinatu du Iñigo Altunak (1998, Lasarte-Oria); Caja Ruralek fitxatu du, 23 urtez azpiko taldean aritzeko. Urrats garrantzitsua egin du bere ibilbidean, baina lasai dago txirrindularia. "Oraindik bigarren urtekoa naiz. Pausoz pauso joan behar dut. Lan asko dut egiteko". Lehen lasterketa egin berri du, Iparraldeko Essor Basque, nahiz eta oraindik ez egon sasoi betean. "Denboraldia lasaiago hastea dut gogoko, maiatza aldean goian egoteko". Dena dela, sentsazio onak ditu gazteak. "Atera ditudan datuak iazkoak baino hobekiak dira, eta pozik nago".

Grupo Eulenetik Caja Ruralera. Nolako izan da jauzia?

Aldaketa handia izan da, baita antolakuntza aldetik ere. Urdara pasata egin genuen lehen kontzentrazioa, elkar ezagutzeko. Material berria probatzeko, eta taldeko beste langileak, masajistak, mekanikoak eta zuzendariak ezagutzeko baliatu genuen. Talde aurkezpenean beste kontzentrazio bat egin genuen, talde profesionalarekin



Iñigo Altuna, entrenamendu batean. IÑIGO ALTUNA

batera. Orain Valentzian egon gara hamar egunez; indartsu entrenatu dugu hor.

Zer aldatu da entrenatzeko moduan? Dieta ere aldatu al dizute?

Kontrol gehiago daukagu. Iaz taldeak jartzen zizkizun entrenamenduak, baina zuk zeuk egokitzen zenituen askotan. Orain kontrola erabatekoa da. Baliabide askoz gehiago ditugu ere; altuerako simulagailua erabiltzen dugu.

Zer moduz bizikleta berria?

Primeran. Profesionalen material berbera erabiltzen dugu, eta gustura nabil.

Profesional talde baten barruan zaude, nahiz eta 23 urtez azpiko kategorian egon. Profesionaltara pasatzeko azken urratsa al da?

Bai, gure taldea filial bat da. Profesionalek egutegi zabala dute, eta guk haien lasterketa batzuetan parte hartzeko aukera izango dugu.

Profesionalekin entrenatzeko aukera ba al duzu?

Bai, denbora dezente pasatzen dugu Iruñean; taldeak etxe bat du hor. Talde profesionalak atzerriak daude, eta haiekin entrenatzen dugu.

Zer moduzko harremana duzu haiekin?

Oso ona. Profesionalak dira, baina gure egoeratik pasatakoak dira, eta ongi ulertzen gaituzte. Beti saiatzen dira gu laguntzen.

Luis Maria Garikanorekin egin duzu jauzia Caja Ruralera, Grupo Euleneko zure taldekidearekin. Lagungarria izango zitzazun azkarrago moldatzeko, ezta?

Bai, oso ondo dator laguntza hori. Saiatuko dira biak elkarrekin jartzen lasterketa eta bidaia guztietan. Aurten egutegia oso zabala da, Espainia osoan eta beste herrialdeetan lehiatu behar dugu, eta ongi etortzen da konfiantzazko pertsona bat ondoan edukitzea.

Negu gogorra izaten ari da. Nola moldatu zara entrenatzeko eguraldi kaskarrarekin?

Negua oso hotza izan da. Inguruko txirrindulari profesional eta afizionatuekin hitz egin, eta entrenatzera egun pasa joan izan gara Nafarroara. Abenduan Katalunian egon nintzen, astebetez entrenatzen beste profesional batzuekin. Benidormen ere egon naiz orain dela gutxi. Eguraldi hotzak jarraitzen du hemen, eta moldatu egin beharko naiz; ea Iruñean euri gehiegirik ez duen egiten taldeko pisura joateko.

Loinazen hirugarren, Urrakin bosgarren, Bidasoako itzulian ere aurrean... Denboraldi txukuna egin zenuen iaz; postu onak lortu zenituen

lasterketa garrantzitsuetan. Zer helburu duzu aurten?

Aurten zailagoa izango da; talde handiago batean nago, eta nire rola aldatu egingo da. Lasterketa handitan ahal dudan moduan lagundu beharko dut. Ni baino zaharragoak badaude; ni gazteenetakoa naiz taldean. Hemengo lasterketetan nire aukerak aprobetxatuko ditut, eta ea iazko postuak hobetzen ditudan.

Morroi lanetan aritu beharko duzu aurten?

Lasterketa garrantzitsuagoak egingo ditut aurten. Gainera, egutegia banatu egiten da. Espainiako Kopara eramango dituzte taldekide zaharragoak. Guri hemengo lasterketak utziko dizkigute; Euskaldun, Lehendakari... Lauak direnean laguntzea egokituko zait, eta aldapatsuagoak direnean, nire aukerak edukiko ditu.

Zein lasterketa dituzu egutegian gorritz markatuta?

Goran bukatzen direnak. Urraki, Gorla eta horrelakoak. Ea sasoiaren iristen naizen zerbait txukuna egiteko.

Nola definituko zenuke zeure burua? Zer motako txirrindularia zara?

Aldapa gora ibiltzen naiz ongi. Halere, nahiko *todoterreno* sentitzen naiz. Horrela izan behar zara hemengo lasterketetan; ongi pasa mendateak, eta azkarra izan, taldetxoak iritsi ohi baitira helmugara.

Zer moduz moldatzen zara egun bat baino gehiagoko itzulietan?

Iaz Bidasoan ongi ibili nintzen. Lehen urtekoa nintzen, eta berria zen niretzako. Gorputzak beste salto bat eman du, eta ea nabaritzen den aurten.

Asier Pozok podiumari eutsi dio


Esperotakoa gertatu da. Espainiako Kopako azken proba jokatu dute asteburuan Mallorcan. Asier Pozo kadetea sailkapen nagusian lehen postuan zegoen, bigarrenarekin eta hirugarrenarekin berdinduta. Baina lan zaila zuen aurretik lasarteoriatarak; beste biak Uharteko Balearretako selekzio kideak ziren, eta etxean jokatzeko zuten. Talde oso baten babesarekin. Pozo Euskadiko Selektzioaren ordezkari bakarra zen. Edonola ere, hirugarren postuari eutsi dio.

"Ez zioten mugitzen utzi, eta behin eta berriz eraso zioten. Azkeneko nekatu zuten. Ongi jokatu zuten, ez zegoen ezer

egiterik", esan du Eugenio Pozo, Buruntzapi Txirrindularitza Eskolako kadeteen entrenatzaileak.

Hala eta guztiz ere, txirrindulari gaztea lehen postuetan egon da jokaturako lau probatan. Zazpigarren puntuazioan, bosgarren Scratch modalitatean, bosgarren Tempo proban eta hirugarren kanporaketetan. Lehen postua galdu arren, ongi defendatu du podiuma. Gainera, taldeka lehen postua eskuratu du Euskadik.

Beñat Carbayeda lasarteoriatarak ere lehiatu du Mallorcan, Gipuzkoako Selektzioarekin.



Pozo eta Carbayeda lehiatu dira Espainiako Kopako proban, Mallorcan. EUGENIO POZO

ZORION AGURRAK



Aiara
Zorionak printzesa! 6 muxu potolo familiaren partetik, asko maite zaitugu.



Hodei
Zorionak familia guztiaren partetik, eta muxu handi bat!



Laia eta Enara
Zorionak pottokak, bigarren urtebetetzean, familia guztiaren partetik.



Nara
Zorionak gure songin-bihurritxoari, muxu pila etxekoen partez. Asko maite zaitugu.



Naiara eta Aingeru
Zorionak maitiak! Aurtengoan ere zoragarri pasa duzelakoan! Muxu erraldoi bana familiaren partetik!



Uxue
Zorionak, maitea, zure bederatzigarren urtebetetzean! Muxu handi bat zure familiaren partetik

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurra eta bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

OHARRAK

La Esperanza auzo elkarteko batzar orokorra

Basaundi bailarako La Esperanza auzo elkarteak otsailaren 17an, larunbatean, egingo du urteko batzar orokorra. Lehen deialdia 10:30ean da, eta bigarrena, 11:00etan.

Elkarteak auzotar guztiak gonbidatzen ditu batzarrera.

Odol ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, otsailaren 26an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Biziraupeneko sukaldaritza ikastaroa

Lasarte-Oriako Udalak *Biziraupeneko sukaldaritza*. Goxoa, erraza eta merkea ikastaroa antolatu du. Saioak otsailaren 22an eta martxoan izango dira, 1, 8, 15 eta 22 egunetan.

Aste osoko menuen antolaketa egin, eta non, zer eta nola egin erosketak irakatsiko dute. Teoria eta praktikak barne.

Izena-ematea Gaztelekuan egin behar da.

Galizia eta Portugalera bidaia

Biyak Bat elkarteak bidaia antolatu du Galizia eta Portugaleko iparraldera, maiatzaren 27tik ekainaren 5era.

Elkarteko bazkideek 530 euro ordaindu behar dituzte; bazkideak ez direnek, berriz, 580 euro.

Izena ematea elkarteko bulegoan egin behar da astelehenean ostiralera, 10:30etik 12:30era.

Emakumeok* planto bilera informatiboa

Larunbat honetan, hilaren 17an, 10:30ean, Emakumeen Zentro Zibikoan martxoaren 8ko grebari buruzko bilera informatiboa egingo dute.

GUTUNAK

Egia, justizia, aitortza eta erreparazioa biktima guztientzat, diskriminaziorik gabe

LASARTE-ORIAKO BIZIKIDETZA TALDEA

Lasarte-Oriako Bizikidetzaren Taldea adostasun batetara iritsi gara eta herritarrei helarazi nahi dizuegu Lasarte-Oriako elkarbizitzaren aldeko adierazpena:

Bizikidetzaren aldeko akordio etikoa.

"Egia, justizia, aitortza eta erreparazioa biktima guztientzat, diskriminaziorik gabe".

1. Lasarte-Oriako herria bertako pertsona guztiok osatzen dugu.

2. Lasarte-Orian mota ezberdinetako indarkeria gertaerak egon dira pertsonen aurka. Gertaera hauek herriko bizilagunen bakea eta bizikidetzakaltatu dute.

3. *Memoria partekatu baterantz* txostenak, 2017ko urriaren 5ean aurkeztua, Lasarte-Orian gertatutako indarkeriazko ekintzak eta testigantza eta hausnarketa ugari azaltzen ditu, iraganaren berrikuspen kritikoa egitera bultzatzen gaituztenak.

4. Akatsetatik ikasi eta bizikidetzarako esparru egonkor bat bermatuko digun Akordio Etiko berri bat finkatu behar dugu.

- Bizitzeko Eskubidea eta Giza Eskubideak bere osotasunean babestu beharreko funtsezko baloreak dira, eta bide berri

honen erreferentzia izan behar dira, denak baitira beharrezkoak.

- Ideia eta posizio ideologiko, erlijioso edo politiko guztiak dira eztabaidagarriak eta denek merezi dute aintzakotzat hartuak izatea, betiere pertsona guztien osotasun fisiko, psikiko eta moralaren eskubidea errespetatzen dituzten heinean.

5. Lasarte-Oriako biztanle bezala adierazpen hau askatasunez eta borondatez babestera eta Akordio Etiko honekin konpromisoa hartzera gonbidatzen zaitugu.

Martxoak 8, emakumeok* planto!

LASARTE-ORIAKO MUGIMENDU FEMINISTA

Joan den urtean 70 herrialdetik gorako emakumeek* grebarako

deialdia egin zuten. Milaka andreok* kaleak bete zituzten haiek gabe sortutako hutsunea ikustarazteko. Aurten Euskal Herriko Mugimendu Feministak ere heldu dio erronkari, eta hortaz, Lasarte-Oriako emakumeok* ere ekin diogu grebaren antolakuntzari.

Ez da ohiko deialdia izango. Izan ere, sistema heteropatriarkalak hainbat ardatzen bidez zeharkatzen gaitu egunerokoan. Egiturazkoa da andreok* bizi dugun zapalkuntza, baina bakoitzak bere gorputzean bizi du modu propioan. Ezin aska gaitzke bakarka, ordea, eta elkarrekin saretu eta aliantzak sortzeko unea heldu da. Emakumeok* planto egiteko garaia da.

Nola egingo dugun? Oraindik asmatzeko dauzkagu bideak,

baina, grebarako espazioak lau izango dira orainoan: zaintza arloan, ikasketa eremuetan, kontsumoan eta lantokietan egingo dugu planto. Lasarte-Orian ere bagara emakume* ikasle, zaintzaile, langabe, kontsumitzaile eta langile. Eta ezinbestekoa dugu denon artean egingo bidea urratzea. Gazte eta helduek lekua izango dugu datozen asanbladetan, eta areago, guztion ekarpena izango da behar-beharrezkoa.

Bihar, larunbatean, otsailaren 17an, goizeko 10:30ean hitzordua dugu Lasarte-Oriako andreok* Emakumeen zentro zibikoan. Zu ere bertan izan zaitez nahi dugu, ozen esan behar dugu nahikoa dela, eta antolatuta gaudela. Egin dezagun planto elkarrekin!

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Auto eta motoak gordetzeko garaje marra alokatzen da, Esperantza plazan. 659021945.

ERRENTAN HARTU

Etxe txiki baten bila gabiltza. 603 194 658.

LANA

ESKAINITZA

Umeak zaindu edota klase partikularak emateko prest. Magisteritza ikasia, esperientzia umeekin eta euskalduna. 658 727 669.

Pertsona bat behar da ileapaindegian lan egiteko, Lasarte-Orian. Interesatuak deitu 615 781 116 telefonora.

ESKAERA

Interno gisa lan edo orduka egingo nuke lan. 617 853 042.

Pertsona bat eskaintzen da adineko pertsonak eta haurrak zaintzeko. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. 677 768 682.

Pertsona bat eskaintzen da etxeko garbiketa lanak egiteko. Externa edo orduka. Esperientzia

du. Telefonoa: 722 555 027.

Umeak zaindu edota klase partikularak emateko prest nago. Magisteritza ikasi dut, eta esperientzia dut umeekin. Euskalduna naiz. Telefonoa: 658727669

HEZKUNTZA

ESKAINITZA

LH eta DBHko klase partikularak edota euskara errefortzurako klaseak emateko prest nago, goizez nahiz arratsalde. 680 967 368.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 16 LASA
Larunbata, 17 GIL
Igandea, 18 GIL
Astelehena, 19 GIL
Asteartea, 20 ACHA-ORBEA
Asteazkena, 21 URBISTONDO
Osteguna, 22 GANDARIAS-URIBE

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbietea kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKIJONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZTA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

JAIOTAKOAK

Zuhaitz Diaz Gonzalez. Otsailaren 11an.

HILDAKOAK

Francisco Garcia de Blas. Otsailaren 14an.

ESKELAK


ESKELAK JARTZEKO:

Txintxarri erredakzioan
943 37 14 48

- ▶ Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90 €
- ▶ Eskela mota guztiak paperean: 80 €

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Erredakzioa

Nerea Elizaguirre, Inigo Gonzalez,
Maddil Noriega eta Adrian Garcia.

Publikitate

Aranxi Zulaika.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Gorka Alvarez,
Jexux Artebe, Maider Galardi,
Mikel Yarza, Nerea Segura eta
Aizpea Amas.

Informatikoa

Asier Aztiria.

Administraria

Nerea Garziarena.

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA

LAGUNTZAILEAK



LASARTE-ORIA
UDALA



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 16

ASTIGARRAGA Emanaldia
Norberto Amadoz musika eskolako trikitixa eta pandero ikasleen emanaldia izango da.
Norberto Almandoz musika eskola, 19:00etan

ANDOAIN Antzerkia
Ergela lana aurkeztuko du Txalo produkzioak. Joseba Apaolaza eta Sara Cortazar dira Jordi Casanovasen komedia honen protagonista. Sarrera, 12 euro.
Bastero Kulturgunea, 21:30ean

LARUNBATA 17

LASARTE-ORIA Txerri hiltzea
Guadalupeko Ama Birjina Extremadura etxeak III. Txerri hiltze *jai*a antolatuko du. 40. urteurrenako ospakizunetako ekintza.
Extremadura etxea, egun osoan zehar

LASARTE-ORIA Antzerkia
Golazen telesailan oinarritutako antzerkia ikusgai izango da. Sarrerak agortu dira.
Manuel Lekuona, 17:00etan

LASARTE-ORIA Bertso-afaria
Lasarte-Oriako irakurle txokoak bertso afari literarioa antolatuko du.
Xirimiri elkarte, 21:00etan

HERNANI Antzerkia
Marie de Jongh antzerki taldeak bere azken lana aurkeztuko du, *Izar*. Haurrei zuzendutako antzerkia da. Doakoa.
Biteri kultur etxea, 12:00etan

ANDOAIN Antzerkia
Anita Maravillas konpainiak *Jon Braun* antzezlan eskainiko du. Txotxongilo eta pertsonaiak nahasten ditu lanak. Sarrera: 4 euro.
Bastero Kulturgunea, 17:00etan

DONOSTIA Tailerra
Gernika dirudi, Picasso akaso tailerra. Guernica artelanaren eta J.R. Amondarainen obren forma ezberdinekin jolasteko sormen tailerra da. 6 eta 12 urte arteko haur eta gaztetxoek zuzendua. Prezioa: 5 euro familiako.
San Telmo museoa, 17:00etan



LASARTE-ORIA Bertso-afari literarioa. Euskal literaturako testuak eta bertsoak nahasten dituen ekitaldia antolatuko du beste urte batez Lasarte-Oriako Literatura Txokoak. Lander Garrok irakurritako testuetan oinarritutako bertsoak abestu beharko dituzte Uxue Alberdik, Nerea Ibarzabalek eta Ane Labaka herritarrek. Txartelak agortu dira dagoeneko.
Xirimiri elkarte, 21:00etan

DONOSTIA Antzerkia
Hecho en casa antzerki taldeak *Cyrano* lana eskainiko du. Haurrei zuzendutako lana da. *Cyrano de Bergerac* obra klasiko oinarri harturik, Japoniako geisha eta samuraien garaira maisuki eramana dagoen moldaketa laburbildua erakusten dute. Hemengo eta mugaz beste aldeko aktoreek antzeztua. Sarrera: 4 euro.
Imanol Larzabal aretoa, 18:00etan

ASTIGARRAGA Kaldereroak
Ergobatik aterako da kaldereroen konpartsa eta Joseba Barandiaran plazan bukatuko dute. Ondoren, afaria Zipotza elkarte. Astigarraga, 19:30ean

DONOSTIA Antzerkia
Ados Teatroak *Dublandarrak* lana eskainiko du. James Joyceren *Dubliners* ipuin laburren bildumako *The dead* azken ipuinean oinarritutako moldaketa da. Sarrerak: 8,15 eta 20 euro.
Victoria Eugenia antzokia, 20:00etan

IGANDEA 18

ANDOAIN Ikuskizuna
Khea Ziater taldeak *Los visitantes* ikuskizuna aurkeztuko du. Talk show-a, zuzeneko musika, anti-tertulia... hausnarketarako eta ikusleen entretenimendurako solasaldi orkestatua. Bertan, besteak

beste, Asier Etxeandia aktorea eta Jon Maia bertsolaria izango dira bisitari. Sarrera: 15 euro.
Bastero Kulturgunea, 19:30ean

DONOSTIA Inauteriak
Altzako auzoan Eltze itsu igandea ospatuko dute Inauterietako desfile koloretsuarekin. Donostia eta inguruko herrietako 25 konpartsa izango dira bertan dantzan.
Alta, 11:00etan

ASTELEHENA 19

LASARTE-ORIA Itsaspeko zinema
Nazioarteko itsaspeko VII. zinema zikloaren bigarren saioa eskainiko dute. Honetan hiru film labur eta film luze bat ikusi ahalko dira: *Maldivetako bihotzean*, *Costa Rica*, *Khelone The Punishment of Hermes* eta *Eduard Admetilla, arrainen laguna*. Danok Kidek eta Real Sociedadeko itsaspeko atalak antolatuta.
Manuel Lekuona, 19:00etan

ASTEARTEA 20

LASARTE-ORIA Irakurle Txokoa
Irakurle Txokoko kideek Eider Rodriguez idazlearen *Bihotz handiegia* liburuaren inguruan solastuko dira. Uxue Alberdik gidatzen du saioa.
Ttakunenea, 18:30ean

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Coco
Igandea: 17:00.
The disaster artist
Igandea: 19:30.

USURBIL

URBIL

Black Panther

Ostirala: 16:05, 18:15, 19:00, 20:00, 21:50, 00:25.
Larunbata: 16:05, 18:15, 19:00, 20:00, 21:50, 00:25.
Igandea: 16:05, 18:15, 19:00, 20:00, 21:50.

Cavernicola

Ostirala: 17:55.
Larunbata: 15:50, 17:55.

Igandea: 15:50, 17:55.

Cincuenta sombras liberadas

Ostirala: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.
Larunbata: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.
Igandea: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30.

El corredor del laberinto: La cura mortal

Ostirala: 19:05, 21:50, 23:45.
Larunbata: 19:05, 21:50, 23:45.
Igandea: 19:05, 21:50.

El cuaderno de Sara

Ostirala: 15:45, 18:05, 21:20, 00:40.

Larunbata: 15:45, 18:05, 21:20, 00:40.
Igandea: 15:45, 18:05, 21:20.

El Gran Showman

Ostirala: 15:55.

Coco

Larunbata: 16:40.
Igandea: 16:40.

Ferdinand

Ostirala: 17:45.

Larunbata:

15:55, 17:45.

La abeja Maya: Los juegos de la miel

Ostirala: 16:00.

Larunbata:

16:00.

La forma del agua

Ostirala: 16:10, 18:45, 20:00, 21:50, 00:40.

Larunbata: 16:10, 18:45, 20:00, 21:50, 00:40.
Igandea: 16:10, 18:45, 20:00, 21:50.

Tres anuncios en las afueras

Ostirala: 18:45, 20:00, 21:50, 00:50.

Larunbata:

22:30, 00:50.

Igandea:

22:30.

Perfectos desconocidos

Ostirala:

15:50, 20:25, 22:50, 00:55.

Larunbata: 20:25, 22:50, 00:55.

Igandea: 20:25, 22:50.

El hilo invisible

Ostirala:

16:20, 22:30.

Larunbata: 22:30.

Igandea: 22:30.



LABURPENA

The Disaster Artist

Zuzendaria: James Franco. **Gidoilariak:** Scott Neustadter, Michael H. Weber, Greg Sestero, Tom Bissell. **Herr.:** ARB (2017). **Aktoreak:** James Franco, Dave Franco, Seth Rogen, Alison Brie, Zac Efron, Josh Hutcherson, Jacki Weaver, Ari Graynor. **Iraupena:** 103 minutu.

Historiako film txarrena

The Room filmaren making-off-ari buruzko istorioa da *The Disaster Artist*.

Filma amets baten bila doazen bi lagun komedia da. Munduak alde batera uzten dituenean, beren filma egiteko erabakia hartuko dute. Filma zatarrak izango da, nahi gabe bizi dituzten une komikoengatik, trama sakabanatuengatik eta aktoreen lan txarrengatik.

The Room film independentea 2003an grabatu zuen Tommy Wiseauk eta hainbat zinema kritikarik pelikula txarren *Citizen Kane* dela esan dute. Hamalau urte egon da ikusgai, sarrera

guztiak agorturik, Ipar Amerika osoko aretoetan.

James Franco zuzendariak *The Room* filmeko aktorea eta Wiseauren laguna den Greg Sesteroren bizipenetan oinarritu du filma. James Franco bera da filmeko protagonista. Wiseauren rola egiten du eta bere lanak hainbat sari eman dizkio, hala nola, Urrezko Globoetan komedia aktore onenaren saria. Dave Franco zuzendariaren anaia berriz, Greg Sestero da.

Hainbat sari irabazi ditu *The Disaster Artist* filmak, hala nola, Donostiako Zinemaldiko Urrezko Maskorra eta Feroz saria.

HITZARTUTAKO 15 ETXEBIZITZEN SUSTAPEN BERRIA LASARTEN

Donostiatik 6 minututara besterik ez



IZENA EMAN
ZOZKETARAKO

Martxoaren
01 arte
duzu epea.

KOMUNIKAZIO HOBERENAREKIN ETA PARAJE NATURAL BATEAN



URBIL MERKATAL GUNEA



ANBULATEGIA



BIDE GORRIA



HAUREN PARKEA



KIROLDEGIA



SANTA BARBARA

PREZIO PAREGABEA ZURE ETXEBIZITZA BERRIARENTZAKO

3 LOGELATAKO ETXEBIZITZA
+ GARAJEA + TRASTELEKUA

212.000€ tik +BEZ

250 familia baino gehiagok
gozatzen dute Lasarteko auzo
berriaz, Donostiatik pauso batera.

Informazio gehiago

943 36 89 42

www.zabaletaberri.es

residencial

zabaleta

berri
bizigunea



Infografía hau(ek) aldatua izan daiteke proiektu teknikoetan